Altzako Historia Mintegia

**OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA**
**ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Casares kultur etxean, 2024ko martxoaren 21ean, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:00ean, ondoko partaide hauekin:
Antxon Alfaro Sagasti, Mª Carmen Alberdi, Elena Arrieta Yarza, Ana Artieda, Amaia Badiola, Javi Castro, Estrelli de la Cruz Echeverria, Arantza Dorronsoro, Bixente Elosegi Etxenike, Joxerra Fernández, Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Patxi Intxaurrandieta, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Anttoni Loro Moreno, Josetxo Mangas, Maribel Manzano Herce, Nekane Maritxalar, Gotzone Ormazabal, Saioa Paulis Ule, Mertxe Perurena, Pili Pingarron, Pepi Sánchez, Jon Serrano Gamaza, Carlos Solana, Josu Tellabide Azkolain, Mikel Ubillos Salaberria, Jon Ander Vega.
Batzarrera ezin izan dutela etorri esan dutenak: Rafa Altube, Susana Hernández Corchete, Luismari Ralla Arruti.
Hasieran, 2023. urteari dagokion Estibaus buletina banatu da, eta Batzarraren gai-zerrenda aztertu da.

*En la casa de cultura Casares, a las 07:00 de la tarde del día 21 de marzo de 2024, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de:*
*Antxon Alfaro Sagasti, Mª Carmen Alberdi, Elena Arrieta Yarza, Ana Artieda, Amaia Badiola, Javi Castro, Estrelli de la Cruz Echeverria, Arantza Dorronsoro, Bixente Elosegi Etxenike, Joxerra Fernández, Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Patxi Intxaurrandieta, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Anttoni Loro Moreno, Josetxo Mangas, Maribel Manzano Herce, Nekane Maritxalar, Gotzone Ormazabal, Mertxe Perurena, Pili Pingarron, Pepi Sánchez, Jon Serrano Gamaza, Carlos Solana, Josu Tellabide Azkolain, Mikel Ubillos Salaberria, Jon Ander Vega.*
*Comunican que no podrán asistir: Rafa Altube, Susana Hernández Corchete, Luismari Ralla Arruti.*
*La Asamblea comienza con el reparto del boletín Estibaus correspondiente al año 2023, y se pasa a tratar el orden del día de la Asamblea.*

**1. 2023. urteko memoriaren onarpena**
Idazkariak 2023 urteko memoria aurkeztu zuen:

***1. Aprobación de la memoria del año 2023***
*El secretario presentó la memoria del año 2023:*

**1. Altzanet**
Aurten webgunearen itxura erabat berritu eta eguneratu dugu, edukien egitura mantenduz. Ikus Estibaus, “Altzanet berritua eta AHMren logo berria” (XX. or.).
AHMren jarduera sare sozialetan garrantzitsua eta poliki handitzen jarraitu du. Datuak hauek dira:

- Facebook: 592 jarraitzaile (+50), 42.748 irakurketa (+18.805).
- Twitter: 435 jarraitzaile (+36), 22.538 irakurketa (+12.875).
- Youtube: 124 bideo (+69), eta denera 20.258 ikustaldi, (+3.199).

Flickr: 111 album (+25), denera 2.256 ikustaldi (+441).

***1. Altzanet***
Este año hemos renovado y actualizado totalmente el aspecto de la web, manteniendo la estructura de contenidos. Ver “Altzanet renovada y nuevo logo de AHM” (p. XX).
La actividad de AHM en las redes sociales es importante y ha seguido creciendo. Los datos son los siguientes:

- Facebook: 592 seguidores (+50), 42.748 lecturas (+18.805).
- Twitter: 435 seguidores (+36), 22.538 lecturas (+12.875).
- Youtube: 124 vídeos (+69), acumula 17.059 visualizaciones (+3.199).
- Flickr: 111 álbumes (+25), acumulan 2.256 visitas (+441).

**2. Argitalpenak**
**2.1 Estibaus bloga**
Estibaus blogean 57 sarrera argitaratu dira. Horietatik 49 euskaraz zein gaztelaniaz daude, 5 soilik gaztelaniaz eta 3 soilik euskaraz. Artikuluen kopurua atalez atal sailkaturik hauek dira: Tokiko Bilduma 7, Kronika zaharrak 3, Ikerketa 8, AltzaNatura 1, Ganbara 2, Lekukoak 2, Ibilaldiak 5, Notiziak 6, Kronikak egungoak 10, Iritziak 9, In memoriam 4.
Estatistikei erreparatzen badiegu, aldaketa sakonak egon egin dira Google Analytics-en, datuen jarraipena egiteko erabiltzen dugun tresna, eta bakarrik eskuratu ahal izan ditugu apirila eta abenduaren arteko datuak. Horrela, denbora tarte horretan 8.538 erabiltzaile egon dira egon dira eta 22.969 bisita. Gutxi gorabeherako kalkulu bat eginez, esan dezakegu erabiltzaile kopurua zerbait jaitsi dela (-%14) eta bisita kopurua mantendu egin dela (+%1).

***2. Publicaciones***
***2.1 Blog Estibaus***
*En el blog Estibaus se han publicado 57 entradas, de ellas 49 en euskera y castellano, 5 solo en castellano, y 3 solo en euskera. El número de entradas clasificadas por categorías: Colección Local 7, Crónicas antiguas 3, Investigación 8, AltzaNatura 1, Ganbara 2, Lekukoak 2, Excursiones 5, Noticias 6, Crónicas actuales 10, Opinión 9, In memoriam 4.*
*Si nos fijamos en las estadísticas, la herramienta de seguimiento de datos que utilizamos, Google Analytics, ha realizado unos cambios el pasado año que solo nos permite acceder a los datos de entre abril y diciembre. Así, en este periodo de tiempo se han contabilizado 8.538 usuarios y 22.969 visitas. Haciendo una estimación aproximada, podemos decir que ha descendido algo el número de usuarios (-14%) y se mantiene el número de visitas (+1%).*

**2.2 Egutegia**
Ikus “Altza 2024 egutegiaren aurkezpena”, Estibaus 53 (2023), 35 or..

***2.2 Calendario***
*Ver “Presentación del calendario Altza 2024”, Estibaus 53 (2023), p. 35.*

***3. Altzako Tokiko Bilduma***
2023ko urte amaieran **22.294** (+995) daude datu basean katalogatuta eta horietatik **18.709** (+999) kontsulta daitezke [www.altza.info](http://www.altza.info) web gunean.
Katalogatutako dokumentu berrien artean multzo nagusiak hauek dira:

- Hemeroteka. La Voz de Guipúzcoa egunkariko 1932. urteko

***3. Colección Local de Altza***
*A finales de 2023 hay **22.294** (+995) documentos catalogados en la base de datos, de los cuales **18.709** (+999) se pueden consultar en la web [www.altza.info](http://www.altza.info).*
*Los principales grupos de documentos catalogados son los siguientes:*

- *Hemeroteca. Entre ellas se encuentran 424 fichas con la imagen del recorte y*

424 kronika katalogatu dira, irudia eta transkripzioarekin.

- Artxibo-dokumentuak, 244. Horietatik 182 Gipuzkoako Artxibo Historikoetatik eskuratutako dokumentuei eta beraien transkripzioei dagozkie.

- Argazkiak, 216. Nabarmentzekoak dira Koro Manso bazkideak utzitakoak, 84, Arriaga inguruko komertzioen argazki bilaketaren ondorioz bilduak, 51,eta Gazte-Leku elkartearen historiarekin lotutakoak, 32.

- Horrez gain, eginak dauden fitxak berrikusten, argazkien eta hainbat dokumentuen kalitatea hobetzen. Denera 84 dokumentu.

**Hedapenaren atalean,** eta www.altza.info webguneari dagokionez, Google Analitycs tresnaren bitartez, orain arte erabili dugun tresna, bakarrik apirila eta abenduaren arteko datuak eskuratu ahal izan ditugu. Horren arabera, denbora tarte horretan, 5.098 erabiltzaile, eta 46.219 bisita eduki ditu. Iazko datuekin konparatzeko estrapolazioa egiten badugu, erabiltzaileen aldetik igotzen jarraituko genuke (+%28) eta bisita kopuruaren aldetik, ordea jaisten -%16).
Casaresen ostegunetako arratsaldetan kontsulta-zerbitzua eskaini da, baita telefonozko eta posta elektronikoaren bitartez ere, denera 149 kontsulta/dei/mezu izanik.
Estibaus buletin digitalean 7 artikulu argitaratu dira espresuki Bilduman jasotako edukiak eskainiz, eta beste 3 kronika zaharren artean.
Arriaga inguruko (Arriberri, Arrizar, Erroteta eta Santa Barbara auzuneak) komertzioen artean argazki bilaketa egin da, 50 urte inguruko historia dauzkaten komertzioen artean, eta argazki horiek, beste artxibo dokumentuekin batera, prestaturik utzi dira 2024. urtean Tomaseneko sarrera erakusketa bat muntatzeko.

*la trascripción de las crónicas del periódico La Voz de Guipúzcoa del año 1932.*
*• Documentos de archivo, 244, de los cuales 182 corresponden a documentos obtenidos de los Archivos Históricos de Gipuzkoa y sus trascripciones.*
*• Fotografías. Destacan la serie de fotos cedida por la socia Koro Manso, 84, la serie de fotos procedentes de los comercios de la zona del Arriaga, 51, y los relacionados con la historia de la asociación Gazte-Leku, 32.*
*• Además, se ha continuado revisando las fichas ya catalogadas, mejorando la calidad de fotografías y documentos digitalizados. En total, 84 documentos.*

*En el **apartado de difusión**, y en lo que respecta a la página web www.altza.info, por medio de Google Analitycs solo hemos podido acceder a los datos comprendidos entre abril y diciembre. En ese periodo de tiempo la web ha contado con 5.098 usuarios y ha recibido 46.219 visitas. Si hacemos una extrapolación respecto al año pasado, seguiríamos subiendo en lo que respecta al número de usuarios (+28%) al tiempo que se reduce el de visitas -16%).*

*En Casares se ha prestado servicio de consulta los jueves por la tarde, y se han atendido las consultas realizadas por teléfono y el correo electrónico, con un total de 149 consultas/llamadas/mensajes.*

*En el boletín digital Estibaus se han publicado 7 artículos en la categoría Colección Local y otros tres en la de Crónicas antiguas, ofreciendo contenidos recogidos en la Colección.*

*Se ha realizado una búsqueda de fotografías entre los comercios de la zona de Arriaga (barrios de Arriberri, Arrizar, Erroteta y Santa Bárbara), y que cuenten con una historia de entorno a 50 años. Con esas fotografías, y otros documentos de archivo, se ha dejado todo preparado para montar una exposición en la entrada de Tomasene en 2024.*

**4. Lekukoak proiektua**

2023an zehar, elkartearen atal honetan egindako jarduera nagusia izan da 60ko eta 70eko hamarkadetan, Santa Barbara eta Erroteta auzoen inguruan, gazte mugimenduan parte hartu zuten pertsonei aurreko urtean egin genizkien 40 elkarrizketa baino gehiagoren edukiari forma ematea. Informazio hori guztia 2023an egindako elkarrizketa batzuetan lortutakoarekin osatu da.

Bildutako informazioa hamar kapitulutan egituratu da, Centauro edo Gazte-Leku elkarteak egindako jarduerak laburbilduz (eskubaloia, mendizaletasuna, euskal dantzak, atletismoa, futbola, errugbia, etab.). 2023an, dagoeneko sei kapitulu argitaratu dira Estibaus buletinean, eta gainerako laurak 2024an argitaratuko dira. Artikuluekin batera, utzi dizkiguten argazki ugari daude.

Halaber, aipatutako jarduerekin zerikusia duten argazkiak eta dokumentu batzuk biltzen jarraitu da. Horiek digitalizatu eta katalogatu ondoren, Altzako Tokiko Bilduman kokatu dira.

Elkartearen webgunean egindako birmoldaketa orokorra aprobetxatu da egindako elkarrizketak hobeto ikusteko eta, diseinu berri baten bidez, elkarrizketen zatiei erabilgarritasun handiagoa emateko. Bideoko grabazioei dagokienez, ez da grabaziorik egin. Dagoeneko grabatutako elkarrizketarik ere ez da editatu eta kodetu, web-orrian eduki berriak gehitzeko (https://www.altzanet.eus/lekukoak/testigantzak/).
Ikus “Félix Iranzo Expósitoren biografia” eta “‘Aupa Martutene’ argazkiaren inguruan” Estibaus 53 (2023), 27. or..

***4. Proyecto Lekukoak***

*A lo largo del año 2023, la principal actividad realizada en esta sección de la asociación ha sido dar forma al contenido de las más de 40 entrevistas que hicimos el año anterior a personas que participaron en el movimiento juvenil que hubo durante los años 60 y 70, en el entorno de los barrios de Santa Bárbara y Roteta. Toda esa información se ha completado con la obtenida en algunas entrevistas realizadas en 2023.*

*La información recogida se ha estructurado en diez capítulos que resumen las actividades que realizaron el club Centauro o el centro juvenil Gazte-Leku (balonmano, montañismo, danzas vascas, atletismo, fútbol, rugby, etc.). Durante 2023, ya se han publicado seis capítulos en el boletín Estibaus y los cuatro restantes se publicaran en 2024. Los artículos están acompañados de numerosas fotografías que nos han cedido.*

*También se ha continuado con la recogida de fotografías y algunos documentos, relacionados con las actividades señaladas, que una vez digitalizados y catalogados se han volcado en la Colección Local de Altza.*

*Se ha aprovechado la remodelación general realizada en el sitio web de la asociación para dar una mayor visualización a las entrevistas realizadas, así como, a través de un nuevo diseño dar una mayor usabilidad a los diferentes fragmentos de las entrevistas. Con respecto a las grabaciones en vídeo, no se ha realizado ninguna grabación. Tampoco se ha editado y codificado ninguna entrevista ya grabada, para añadir nuevos contenidos en la página web (https://www.altzanet.eus/es/lekukoak-es/testimonios/).*
*Ver “Biografía de Félix Iranzo Expósito” y “Acerca de la foto “Aupa Martutene”, Estibaus 53 (2023), p. 27.*

**5. Ibilaldiak**

**5.1 Plus 55, Altzatik abiatutako ibilbideak**

Ikus Estibaus 53 (2023), “+55 Altzatik abiatutako ibilbideak, 2023 denboraldia (martxoa-urria)”, 28. or., “Altzako antzinako bideetan zehar”, 29. or., eta “Aurtengo txangoen argazki erreportajeak”, 39. or..

***5. Excursiones***

***5.1Plus 55, Caminos desde Altza***

*Ver Estibaus 53 (2023), “+55 Caminos desde Altza temporada 2023 (marzo-octubre)” , p. 28, “Por los antiguos caminos de Altza”, p.29), y “Reportajes fotográficos de las excursiones de este año”, p. 39.*

**5.2 Trebiñu**

Trebiñu, Javi Castro gidatuta. Ikus “Excursión molera por la cantera de Sesturri (Treviño)”, Estibaus 53 (2023), 29. or..

**5.2 *Treviño***

Ver “Excursión molera por la cantera de Sesturri (Treviño)” , guiada por Javi Castro, *Estibaus 53 (2023), p. 29.*

**5.3 Jane’s Walk Bidebietan**

Ikus Estibaus 53 (2023), 28. or..

***5.3 Jane’s Walk: Bidebieta***

*Ver Estibaus 53 (2023), p. 28.*

| | |
|---|---|
| **6. AltzaNatura** | ***6. AltzaNatura*** |
| Ikus "Naturaldia" Estibaus 53 (2023), 24. or.. | *Ver "Naturaldia" Estibaus 53 (2023), p. 24.* |
| **7. Ganbara** | ***7. Ganbara*** |
| Ikus "Ganbara bilduma, 60ko hamarkadan bidaia", eta "Ganbarako objektuek hitz egiten jarraituko dute", Estibaus 53 (2023), 25. or.. | Ver "Ganbara bilduma, un viaje a los años sesenta", y "Los objetos de Ganbara seguirán hablando", Estibaus 53 (2023), p. 25. |
| **8. Barrutia** | ***8. Distrito*** |
| Maiatzean egin ziren udal hauteskundeak direla eta, Barrutiko jarduera geldirik egon da maiatzetik aurrera. Uda aurreko hilabeteetan barrutian elkarrekin lanean ari garen 13 bat elkarteok bilerak egin ditugu balorazioak elkarrekin trukatzeko eta Batzarraren aurrean jarrerak eta proposamenak adosteko. Bestalde, AHMk parte hartu du Barrutiak abian jarri zuen legegintzaldia ebaluatzeko prozeduran (bilerak, formularioak eta abar), bai eta Komunikazioko eta Memoria Historikoko lantaldeetan ere. Hiru bilera egin dira Komunikazio-taldean, eta bakarra Memoria Historikoaren lantaldean. Azken lantalde horri dagokionez, bilera hori ez da nahiko izan 2022an egindako jardueren lanen dibulgazio-lana aurrera eramateko, eta lana egiteke geratu da.<br>Ikus "Ekialdeko Barrutia: Sei urteko lana. Noruntz goaz?", "Soka-dantzaren ohitura berreskuratuz", "Sagardo Egun feminista", eta "Ekialdeko Barrutiko Batzarrerako hauteskundeak", Estibaus 53 (2023), 43, 37, eta 33 orrialdetan, hurrenez hurren. | *Con motivo de las elecciones municipales celebradas este año, la actividad en el Distrito ha estado parada desde mayo hasta diciembre. En los meses previos al verano han tenido lugar varias reuniones de las asociaciones que trabajan conjuntamente en el tema del distrito, unas 13, en las que participa AHM, donde se discuten las diferentes opiniones, y se acuerdan posiciones colectivas. Por otro lado, AHM ha participado en el procedimiento de evaluación de la legislatura (reuniones, formularios) que puso en marcha el Distrito, así como en los grupos de trabajo de Comunicación y Memoria Histórica. Se han realizado tres reuniones en el grupo de Comunicación, y solo una en el grupo de trabajo de Memoria Histórica, insuficiente para llevar a cabo la labor divulgativa de los trabajos de las actividades realizadas durante el año 2022, quedando el trabajo pendiente.*<br>*Ver " Distrito Este: Seis años de trabajo ¿Hacia dónde vamos?", "Soka-dantzaren ohitura berreskuratuz", "Feria feminista de la sidra", y "Elecciones a la Junta de Distrito", Estibaus 53 (2023), pp. 43, 37, y 33 respectivamente.* |
| **9. Elkartearen bizitza** | ***9. Vida de la asociación*** |
| | |
| **Altak eta bajak**:<br>ALTAK<br>• Arantza Dorronsoro Aldasoro<br>• Jabier Estebanez Laredo<br><br>BAJAK<br>• Angel Maria Calvo Barco (+)<br>• Joan Mari Irigoien Aranberri (+)<br>• Vicente Indaberea Puy (+)<br>• Ramón Fermín Gorosabel<br>• M. Angeles Chavarri<br><br>Une honetan elkarteak 191 bazkide ditu. | ***Altas y bajas:***<br>*ALTAS*<br>• *Arantza Dorronsoro Aldasoro*<br>• *Jabier Estebanez Laredo*<br>*BAJAS*<br>• *Angel Maria Calvo Barco (+)*<br>• *Joan Mari Irigoien Aranberri (+)*<br>• *Vicente Indaberea Puy (+)*<br>• *Ramón Fermín Gorosabel*<br>• *M. Ángeles Chávarri*<br><br>*En la actualidad la asociación cuenta con 191 socias y socios.* |
| Aurkeztutako 2023. urteko memoria aho batez onartzen da. | *Se aprueba por unanimidad la memoria del año 2023.* |

| | |
|---|---|
| **2. Ekonomi balantzea – 2023** | **2. Balance económico – 2023** |

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---:|---:|
| Aurreko saldoa (2023/01/01) | 8.625,09 | |
| Bazkide kuotak | 1.840,00 | 127,67 |
| Tokiko Bilduma | 5.000,00 | 1.659,29 |
| "Estibaus" buletina | | 1.040,00 |
| Altzanet | | 1.185,52 |
| Webgune berria | | 3.326,28 |
| Lekukoak | | 90,32 |
| "Altza ezagutuz" programa | 675,00 | 686,25 |
| Txangoak | | 170,94 |
| Egutegia | 405,00 | 1.031,08 |
| Ekipamenduak | | 581,34 |
| Ganbara | | 90,50 |
| Kontu korronteen kudeaketa | | 66,00 |
| Elkartearen bizitza | | 828,35 |

| | | |
|---|---|---|
| **GUZTIRA . . .** | **16.545,09** | **10.883,54** |

***SALDOA (2023/12/31): 5.661,55 €***

| | |
|---|---|
| LABORAL KUTXA | 5.661,55 |

Altza, 2024ko urtarrilaren 18a.

Diruzainak aurkeztutako 2023. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

*La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2023 presentado por el Tesorero.*

**3. Bazkide berrien onarpena eta bajak**

ALTAK
- Arantza Dorronsoro Aldasoro
- Jabier Estebanez Laredo

BAJAK
- Angel Maria Calvo Barco (+)
- Joan Mari Irigoien Aranberri (+)
- Vicente Indaberea Puy (+)
- Ramón Fermín Gorosabel
- M. Angeles Chavarri
- Jose Domingo Torrado
- Encarna Arroyo Rodríguez

**3. Admisión de nuevos socios y socias, y bajas**

ALTAK
- Arantza Dorronsoro Aldasoro
- Jabier Estebanez Laredo

BAJAK
- Angel Maria Calvo Barco (+)
- Joan Mari Irigoien Aranberri (+)
- Vicente Indaberea Puy (+)
- Ramón Fermín Gorosabel
- M. Angeles Chavarri
- Jose Domingo Torrado
- Encarna Arroyo Rodríguez

**4. AHMko Zuzendaritza Batzordearen izendapena**
- Presidentetza: Juan Serrano Gamaza
- Presidenteordetza: Isabel Manzano Herce
- Idazkaritza: Iñigo Landa Ijurco
- Ddiruzaintza: Antxon Alfaro Sagasti
- Batzordekidea: Rafa Altube Zumalde
- Batzordekidea: Saioa Paulis Ule

Aho batez onartzen da.

***4. Nombramiento de la Junta de AHM***
- *Presidentetza: Juan Serrano Gamaza*
- *Presidenteordetza: Isabel Manzano Herce*
- *Idazkaritza: Iñigo Landa Ijurco*
- *Ddiruzaintza: Antxon Alfaro Sagasti*
- *Batzordekidea: Rafa Altube*
- *Batzordekidea: Saioa Paulis*

*La Asamblea por unanimidad aprueba el nombramiento de la Junta.*

**5. 2024. urterako egitasmoa**

2024. urtean zehar garatzeko asmoa daukagun jarduerak hauek dira:

Casares-Tomasene Kultur Etxearekin elkarlanean:
- Altzako Tokiko Bilduma
- Altzatik abiatutako ibilbideak (Plus 55)
- Altzako Naturaldia

Elkartearen barneko jarduerak:
- Elkartearen artxibategia
- Sare sozialak: Instagram

Jarduera orokorrak:
- Lekukoak
- Dokumentala: 50-60 hamarkadetako immigrazio
- Barrutia
- Memoria historikoa
- Altzapedia
- Ibilaldiak
- Estibaus bloga eta buletina
- 2025. urteko egutegia.
- Argazki erakusketa
- Beste elkarteekin elkarlana.

Jarduera horien finantzatzeko bazkideen kuotak, Tokiko Bilduma kudeatzeko hitzarmenaren ekarpena, eta elkartearen diru-erreserba daukagu.

***5. Plan de actividades para el año 2024***

*Las actividades previstas para desarrollar en 2024 son las siguientes:*

*En colaboración con la Casa de Cultura Casares-Tomasene:*
- *Colección Local de Altza*
- *Caminos desde Altza (Plus 55)*
- *Jornadas de la Naturaleza de Altza.*

*De carácter interno de la asociación:*
- *Archivo de la asociación*
- *Redes sociales: Instagram*

*Actividades:*
- *Lekukoak*
- *Documental: Inmigración años 50-60*
- *Distrito*
- *Memoria histórica*
- *Altzapedia*
- *Excursiones*
- *Blog y el boletín Estibaus*
- *Calendario 2025.*
- *Exposición fotográfica*
- *Colaboraciones con otras asociaciones.*

*Para la financiación de estas actividades contamos la aportación económica de los socios y socias, el convenio de colaboración de la Colección Local, y el fondo de reserva.*

**5. Norberak dakarrena**

Puntu guztiak luze eta zabal aipatu ziren, eta egindako galderei behar bezala erantzun zitzaien.

***5. Ruegos y preguntas***

*Todos los puntos fueron ampliamente comentados y las preguntas que se hicieron fueron respondidas satisfactoriamente.*

**6. Aktaren onarpena**

Batzarraren akta hau aho batez onartua izan zen.

Idazkaria

***6. Aprobación del acta***

*Se procedió a la aprobación por unanimidad de la presente acta.*

*Lehendakaria*

| | |
|---|---|
| Iñigo Landa | Jon Serrano |